

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

Aurkibidea

Parte-hartzaileen profila

- Adina eta jatorrizko lurraldea 1
- Ikasketa-zentroak 2
- Ikasketa-adarra 2

Zergatik aukeratu dute Bilbo

- Hurbiltasuna eta aukera ekonomikoa 3
- Eskaintza akademikoa 3
- Bereizgarritasuna 4
- Bizigarritasuna 4
- Baldintzatutako erabakia 4

Zer dakar Bilbon bizi eta ikasteak

- Etxebizitza: muga nagusia 5
- Garraio publikoa 6
- Ikasteko espazioak eta unibertsitate-bizitza 7
- Kalitate akademikoa 8
- Bekak eta laguntzak 9

Gazteen sustraitzea bultzatzeko gakoak

- Lan-aukerak 9
- Emantzipatzeko aukera 10
- Sare pertsonalak, identitatea eta komunitatea 10
- Hiri-ingurunea eta bizi-kalitatea 10
- Prestakuntza- eta bizi-garapena 10

Bilbo Unibertsitate Hiri gisa gazteen ikuspegitik eraikitzeko proposamenak

- Etxebizitza eskuragarria 11
- Garraio publikoa 11
- Ikaskuntzarako espazioak 12
- Unibertsitate-bizitza eta komunitatea 12
- Laneratzea 12
- Ongizate integrala 13
- Bekak eta laguntzak 13
- Geratzeko moduko hiri bat 13

Ondorioak 14

Parte-hartzaileen profila


Txosten honek 103 ikasle gazteren ahotsa jasotzen du, eta haien ikuspegitik eta esperientziatik abiatuta, Bilbo benetako Unibertsitate Hiri gisa sendotzeko behar dituen elementuak zein proposamen batzuk aztertzen ditu.

Kontsultan Bilbon edo Bilboko unibertsitate-ekosistemarekin lotura funtzionala duten unibertsitate-zentroetan ikasten duten gazteen erantzunak bildu dira. Laginak Bizkaiko unibertsitate-ikasleen ordezkaritza islatzen du modu anitzean, eta parte-hartzea batez ere graduko ikasketetako ohiko adinetan eta graduondoko lehen urteetan kontzentratu da.

Adina eta jatorrizko lurraldea


Parte-hartzaileak unibertsitate-ibilbideko etapa desberdinetakoak diren arren, galdetegiari erantzun diotenen ia erdia (**% 49,5**) 20 eta 22 urte bitartekoa da. Bizitzako etapa hori bereziki esanguratsua da, autonomia handiagoa lortzen delako, ikasketa-ibilbideak aukeratzen direlako, lehen praktika edo lan-esperientziak izaten direlako eta etorkizun profesionala nahiz pertsonala baldintzatuko duten erabakiak hartzen direlako.

Adin-zenbaketa



Lurraldeari dagokionez, lagina gehienbat Bizkaiko ikasleek osatzen dute (74 pertsona). Gainerako parte-hartzaileak, batez ere, Gipuzkoatik datoz, eta beste lurralde batzuetako presentzia oso txikia da. Banaketa horri esker, emaitzak nagusiki Bizkaiko errealitatetik interpreta daitezke, Euskadi inguruko beste esperientzia batzuen ekarpena alde batera utzi gabe.

Jatorrizko-lurraldearen kontaketa: nongoa zara?




Ikasketa-zentroak

Erantzunek hainbat ikasketa-zentrotako ikasleak biltzen dituzte, eta bereziki nabarmena da Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen, Cámara Bilbao University Business School-ren eta IED Kunsthal Bilbaoren presentzia.

Neurri txikiagoan bada ere, UNED, UNIR, Universidad de Castilla-La Mancha eta Mondragon Unibertsitateako ikasleek ere parte hartu dute. Aniztasun horrek bermatzen du emaitzek gazte-ikasleen kolektiboa bere osotasunean ordezkatzen dutela. Gainera, horrek aukera ematen du Bilbo ez ulertzeko soilik campusen batura gisa, baizik eta prestakuntzarako hiri-ekosistema zabalago gisa; bertan elkarren artean bizi baitira unibertsitate publikoa, unibertsitate pribatuak, eskola espezializatuak eta aurrez aurrekoak ez diren edo online prestakuntza-modalitateak.

Zein unibertsitatetan ikasten duzu?



	Ikastegia	Erantzun kopurua	Profilaren irakurketa nagusia
	EHU	58	Leioakoa, San Mamesekoa, Sarrikokoa eta metropoli-eremuko beste zentro batzuetakoak gehienak
	Deustuko Unibertsitatea	17	Gizarte-zientziak, ingeniaritza, zuzenbidea, hezkuntza, etab.
	Bilboko Kamara University Business School	12	Enpresa, kudeaketa eta prestakuntza aplikatua
	IED Kuntshal Bilbao	10	Diseinua, artea eta sormena
	UNED Portugalete	3	Enpleguarekin bateragarriak diren bigarren titulazioa edo ikasketak
	UCLM, UNIR y Mondragon Unibertsitatea	3	Online, Enpresagintza, etab.

Ikasketa-adarra

Kontsultako erantzunak ikasketa-adar estandarizatuen arabera sailkatzen ez badira ere, fakultateek eta ikasketa-zentroek profilak gutxi gorabehera multzokatzeko aukera ematen dute. Hiru multzo nagusi nabarmentzen dira: ingeniaritza eta teknologia, gizarte-, zuzenbide- eta ekonomia-zientziak, eta diseinua, artea eta sormena. Horiez gain, osasuna, hezkuntza, psikologia, kirola eta online edo bestelako erantzukizunak uztartzera bideratutako ikasketak ere agertzen dira.

Hala ere, emaitzen azterketa ikuspegi bateratu batetik egin da, kontsultak ez baitu soilik ikasleen esperientzia akademikoa aztertzen, baizik eta Bilbon ikasten duten gazteen errealitate osoa. Txostenak askotariko egoerak jasotzen ditu: familiarekin bizi direnak, etxebizitza partekatzen dutenak edo alokairuan bizi direnak; ekonomikoki aurrera egiteko ikasketak eta lana uztartzen dituztenak; eta egunero beste udalerri batzuetatik joan-etorrian aritzen direnak.

Era berean, etorkizunari buruzko itxaropenak ere aztertzen ditu, gazteek beren bizi-proiektua Bilbon garatzea aurreikusten duten eta erabaki horretan zer faktorek eragiten duten argituz. Ildo horretan, etxebizitzarako sarbidea, lan-aukerak eta komunitate-sentimendua funtsezko elementu gisa agertzen dira. Unibertsitate-esperientzia deskribatzeaz harago, ikerketa honen helburua Bilbok zer baldintza eskaini behar dituen identifikatzea da, gazte talentua hirira erakartzeaz gain, bertan geratzea eta etorkizuna ere bertan eraikitzea erabaki dezaten.

Zergatik aukeratu dute Bilbo?

Bilbon ikasteko erabakia hainbat faktoreren konbinazioaren emaitza da: hurbiltasuna, eskaintza akademikoa, kostua, prestigioa eta sustraitze pertsonala. Gazte askorentzat, Bilbo ez da soilik estrategia akademiko baten ondorioz aukeratzen; izan ere, familia-, gizarte- eta lurralde-lotura eta laguntza sare hauek hautsi gabe ikasteko aukera ematen du.

Hurbiltasuna eta aukera ekonomikoa

Arrazoi aipatuenetako bat familiarekiko hurbiltasuna da (ikus 3.1 atala). Kasu askotan, Bilbon ikasteak familia-etxean bizitzen jarraitzeko edo beste autonomia-erkidego batera joateak ekarriko lituzkeen kostuak murrizteko aukera ematen du. Hori bereziki garrantzitsua da etxebizitzaren, garraioaren eta, oro har, bizi-kostuaren garestitzearen testuinguruan.

Hurbiltasuna ez da anbizio faltaren edo immobilismoaren adierazle gisa ulertu behar; gazte askorentzat, ikastea posible egiten duen baldintza materiala da. Horrela, Bilbo aukera bideragarri bihurtzen da, zaintza-sareei eusteko, gastuak murrizteko eta ikasketak enpleguarekin edo bestelako erantzukizun pertsonalekin bateragarri egiteko aukera ematen duelako.

Eskaintza akademikoa

Prestakuntza-eskaintza erakargarritasun-faktore nagusietako bat da. Parte-hartzaile askok adierazi dute Bilbo aukeratu zutela egin nahi zuten gradua, masterra edo prestakuntza-programa unibertsitate-inguruneko campus edo ikastegietako batean eskaintzen zelako. Erantzun askotan, hautua “erraza” edo “automatikoa” izan zela azaltzen dute, bilatzen zuten titulazioa Bilbon, Leioan, San Mamesen, Sarrikon edo inguruko beste ikastegiren batean ematen zelako.

Ideia hori funtsezkoa da Unibertsitate Hiriaren estrategiarako: Bilbok gazteak erakartzen eta bertan mantentzen ditu titulazio espezializatuak, aitortuak eta praktikekin, ikerketarekin edo lan-aukerekin lotuta daudenean. Hiriak unibertsitate-erakargarritasuna lortzen du inguruko beste lurralde batzuetan beti eskuragarri ez dauden ikasketak eskaintzen dituenean.

Bereizgarritasuna

Unibertsitateen kalitatea, prestigioa eta espezializazioa behin eta berriz agertzen dira parte-hartzaileen erantzunetan, bereziki ingeniaritzako, osasun-arloko, gizarte-zientzietako, diseinuko eta enpresa-arloko ikasketetan. Era berean, ikerketa egiteko aukerak, praktikak eta prestakuntza aplikatua ere garrantzi handiko elementutzat jotzen dira.

Bikaintasun akademikoa ezinbesteko baldintza da, baina jada ez da nahikoa. Erantzunen arabera, prestigioak erakarpen-gaitasuna galtzen du unibertsitateko esperientzian gainkarga, laguntzarik eza eta etorkizunerako aukera gutxi daudenean. Bilboren erronka ez da soilik ikasleak erakartzea, baizik eta bertan geratzeko nahia piztuko duten baldintzak eskaintzea.

Bizigarritasuna

Hiriaren eskala ere positiboki baloratu da. Izan ere, Bilbo hiri nahiko konektatua dela nabarmendu dute parte-hartzaileek, aisialdi- eta kultura-eskaintza zabala, segurtasun-sentsazioa, garraio publiko egokia eta natura-ingurunea hurbil izatea azpimarratuz. Beraz, unibertsitateaz harago, Bilbo modu positiboan baloratzen da hiri-bizitza, harreman pertsonalak, aisialdia eta kultura uztartzen dituelako; talentu gaztea erakartzeko eta bertan mantentzeko gaitasuna indartzen duten elementuak, hain zuzen ere.

Hala ere, balorazio positibo hori eskaera argiekin batera doa: garraio publiko merkeagoa eta maiztasun handiagokoa, ikasteko espazio gehiago, berdegune gehiago, unibertsitate-bizitza biziagoa eta Bilbo hiri garesti bihurtzea edo ikasten eta bertan bizi diren edo bizi nahi duten pertsonen ordez turismoari lehentasuna ematea saihestuko duten politika gehiago.

Baldintzatutako erabakia

Txosten honek funtsezko ideia bat azpimarratzen du: gazte askok Bilbo aukeratzen dute, baina hautu hori baldintza materialek zehazten dute. Batzuentzat, Bilbo lehen aukera da identitateagatik, familia-loturengatik, kalitateagatik edo bizi-proiektuagatik. Beste batzuentzat, berriz, aukera bideragarriena da, kanpoan ikasteak kostu handiegia duelako. Eta beste zenbaitentzat, ia aukera bakarra da, nahi duten titulazioa bertan bakarrik eskaintzen delako. Horrenbestez, Udalak, zein dagokion ehunak (enpresa-, unibertsitate- eta komunitateak), Bilbo garatu beharko dute unibertsitate-hiriaren erakargarritasun gisa: ez da nahikoa ikasleak erakartzea hiriak haien bizi-proiektuak eutsi ahal izateko baldintzak bermatu behar dizkie.


Zer dakar Bilbon bizi eta ikasteak?

Kontsultak erakusten du Bilbok dagoeneko Unibertsitate Hiri gisa jarduten duela gazte askorentzat, baina, aldi berean, agerian uzten du egoera hori ez dagoela erabat bermatuta. Ikasleen esperientzia oinarrizko lau baldintzaren mende dago: etxebizitza, garraioa, unibertsitateko eta hiriko espazioak, eta laguntza ekonomiko zein akademikoa.


Etxebizitza: muga nagusia

Etxebizitza kezka nagusietako eta egiturazkoenetako bat da. Laginaren zati handi bat familia-etxean bizi da (**% 71,8**), eta horrek ikastearen zuzeneko kostua murrizten du. Hala ere, alokairuko etxebizitzetan bizi behar dutenek (**% 21,36** etxebizitza partekatuetan eta **% 2,9** bakarrik) edo egoitzetan bizi direnek (**% 0,97**) prezio altuak, eskaintza urria, ikasleen beharretara egokitutako etxebizitzak aurkitzeko zailtasunak eta alternatiba publikoen gabezia nabarmendu dituzte.

Bilbon ikaslearentzat etxebizitza eskuragarrien aukera nahikoak daudela uste duzu?



Ezagutzen al dituzu "Bilboko Udal Etxebizitak"-ek eskaintzen dituen aukerak?



Gazteek neurri oso zehatzak proposatu dituzte:

"Ikasleentzako etxebizitza publiko edo udal-etxebizitzen parkea handitzea"

"Egoitza publikoak edo prezio eskuragarriko unibertsitate-ostatuak sortzea"

"Alokairuen prezioak arautzea edo mugatzea"

"Etxebizitza partekatuak erraztea eta logelen alokairuan ematen diren gehiegikeriak kontrolatzea"

"Ikasleentzako etxebizitzen poltsa edo plataforma publikoak sortzea"

"Bilboko Udal Etxebizitzei eta eskuragarri dauden gainerako baliabideei buruzko informazioa hobetzea"

Gazteen ikuspegitik, etxebizitza ez da bigarren mailako auzia. **EGK-k uste du etxebizitza eskuratzeko aukerak zuzenean baldintzatzen duela aukera-berdintasuna. Bilbok kanpoko ikasleak erakarri eta gazte talentua bertan mantendu nahi badu, beharrezkoa da ostatu-politika bat garatzea, familien gaitasun ekonomikoaren mende soilik egongo ez dena. Horretarako, gazteentzako bizitegi-irtenbide irisgarriak, nahikoak eta eskuragarriak eskaini behar dira, eta dauden baliabideen inguruko informazioa ere hobetu behar da.**

Garraio publikoa

Garraio publikoa Bilbon ikastea errazten duten faktore nagusietako bat da, bereziki inguruko udalerrietan bizi diren ikasleentzat. Hala ere, erantzunek hiru arazo nagusi azpimarratzen dituzte behin eta berriz: prezioa, maiztasuna eta campus edo auzo jakin batzuetarako konexioa.

Hauek dira gehien errepikatu diren eskaerak:

"Ikasleentzako deskontu espezifikoak ezartzea"

"Unibertsitateko joan-etorrietarako doakotasuna edo tarifa murriztuak eskaintzea"

"Hileko bonu edo garraio-abonu integratu malguagoak sortzea"

"Puntako orduetan zerbitzuak indartzea"

"Autobusen maiztasun handiagoa unibertsitateko guneetara, hiriguneetara eta landa-guneetara"


"Lotura hobeak bermatzea komunikazio eskasagoa duten auzo eta udalerrietatik"

"Bizikleta eta patinetea erabiltzeko aukera seguru eta erosoagoak eskaintzea"

Mugikortasuna Unibertsitate Hiriaren ereduaren oinarrizko zutabeetako bat da. Bilbok metropoli-ekosistema bat egituratzen du, eta bertan milaka ikaslek egunero egiten dituzte joan-etorriak campus desberdinen eta hiriaren artean. **EGKren ustez, garraio publiko irisgarria, eraginkorra eta ondo konektatua eskaintzea funtsezkoa da; izan ere, unibertsitatera iristea errazteaz gain, unibertsitate-bizitza Bilboko eguneroko bizitzan integratzen du, campusen eta hiriaren arteko lotura sendotzen du, eta ingurunearekin lotura handiagoa duen unibertsitate-esperientzia sustatzen du.**

Era berean, landa-eremuen errealitatea kontuan hartzearen eta Unibertsitate Hiriaren ereduaren hobekuntzan sartzearen garrantzia nabarmentzen du. Premia hori bereziki garrantzitsua da campusekiko loturari dagokionez, eremu horietan bizitzeak logistika konplexuagoa eskatzen baitu. Garraio publikoaren maiztasun txikiagoak eta distantzia handiagoek ikasketak bizitzako beste eremu batzuekin uztartzea zailtzen dute, hala nola enpleguarekin, parte-hartze sozialarekin edo aisialdiarekin.

Zenbat denbora behar duzu zure bizilekutik unibertsitatera iristeko, lehen aipatutako garraiobidea erabiltzen baduzu?



Ikasteko espazioak eta unibertsitate-bizitza

Zeharkako eskaera nagusietako bat (**% 48,6)** liburutegi, ikasgela eta ikasteko espazio gehiago izatea da, ordutegi zabalagoekin, bereziki asteburuetan, jaiegunetan eta azterketa-garaietan. Erantzun askotan espazioen saturazioa, ikasteko lekuen eskasia, ordutegi mugatuak eta ikasteko zein atseden hartzeko toki atseginen falta aipatzen dira.
Era berean, ikasgelatik harago doan unibertsitate-bizitzaren gabeziak ere kezka sortzen du.

Gazte batzuek honako eskaera hauek egin dituzte:

"Unibertsitate arteko ekitaldi gehiago antolatzea"

"Unibertsitateen inguruan gizarte-harremanetarako espazio gehiago sortzea"

"Unibertsitate-azokak eta ikasleen proiektuak erakusteko guneak antolatzea"

"Kide izatearen sentimendua sustatuko duten campusak edo hiri-inguruneak garatzea"

"Ikasleentzako deskontuak dituzten kultura-jarduera gehiago eskaintzea"

"Ikasleek elkar ezagutu, parte hartu eta komunitatea eraiki ahal izateko espazioak sortzea"

Alderdi hori funtsezkoa da Bilbo Unibertsitate Hiri gisa ulertzeko. **EGKren aburuz, kontzeptu horrek ez du fakultateak dituen hiri bat soilik definitzen; ikasteko, elkar ezagutzeko, sortzeko, atseden hartzeko, parte hartzeko eta bizitzeko espazioak eskaintzen dituen hiria ere bada.**

Kalitate akademikoa

Ikasketen kalitatearekiko gogobetetasuna, oro har, ertaina da, baina erantzun irekiek hainbat kezka garrantzitsu ere agerian uzten dituzte. Besteak beste, ikasketa-plan zaharkituak, teoriaren gehiegizko pisua, lan-karga handia, azterketetan gehiegi oinarritutako ebaluazio-sistemak, *feedback* edo itzulkin eskasa, ikasle-ratio handiak, hurbiltasun gutxiko irakasleak eta etorkizun profesionalera begirako orientazio urria aipatzen dira.

Horrez gain, estresa, antsietatea, motibazio falta, bekak mantentzeko presioa eta ikasketak, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko zailtasunak ere sarri agertzen dira. Horrek guztiak eragina du ikasketetan jarraitzeko erabakian, eta zenbait kasutan ikasketak uztea ere planteatzera eramaten ditu ikasleak (**% 44,67**k adierazi du noizbait ikasketak uztea pentsatu duela).

Proposamenek honako neurri hauek planteatzen dituzte:

"Metodologia praktikoagoak eta eguneratuagoak ezartzea"

"Lan-mundurako eta etorkizunerako orientazio gehiago eskaintzea"

"Unibertsitateen, administrazioaren eta enpresen arteko lotura indartzea"

"Enpleguarekin eta bizitza pertsonalarekin bateragarriagoak diren ordutegiak eskaintzea"

"Laguntza psikologiko irisgarria eta kalitatezkoa bermatzea"

"Ikasturte osoan egindako ahalegina hobeto aitortuko duen etengabeko ebaluazio erreal eta egokituagoa ezartzea"

EGKren ustez, funtsezkoa da Unibertsitate Hiriaren ereduak ongizate emozionala eta osasun mentala ere bere baitan hartzea. Ez da nahikoa ikasleak erakartzea; hezkuntza-sistemak ikasleen ongizatea eta ibilbidea ere lagundu behar ditu, unibertsitate-esperientzia osasungarria eta jasangarria izan dadin.

Bekak eta laguntzak

Bekak eta laguntzak funtsezko elementu gisa agertzen dira, beste behin ere, aukera-berdintasuna bermatzeko. Parte-hartzaile batzuek jasotako laguntzak positiboki baloratzen dituzten arren, erantzunen zati handi batek sarbide-irizpideak zabaltzea, eskuragarri dagoen informazioa hobetzea, ebazpen- eta ordainketa-epeak bizkortzea eta baldintza akademiko zorrotzegiek kalteberatasun-egoeran dauden, osasun mentaleko zailtasunak dituzten edo eskakizun handiagoko titulazioak ikasten ari diren pertsonak ez zigortzea eskatzen du.

Mezu nagusia argia da: laguntzek gazteen errealitate osoari erantzun behar diote, eta ez dute soilik espediente akademikoa edo diru-sarrera jakin batzuk kontuan hartu behar.

Eztabaida horrek are garrantzi handiagoa hartzen du ikastearen kostuak etengabe gora egiten duen testuinguru honetan, bereziki matrikulen garestitzearen eta unibertsitate-bizitzari lotutako gainerako gastuen ondorioz. Beka-sistema kostu horien erritmo berean egokitzen ez denean, zailtasun ekonomikoek goi-mailako ikasketetara sartzea, bertan jarraitzea edo arrakastaz amaitzea baldintzatzeko arriskua handitzen da.

EGKren iritziz, beharrezkoa da beka-eredu zabalago, malguago eta gaur egungo gazteen errealitatera egokituago baterantz aurrera egitea. Eredu horrek ikastearen benetako kostua kontuan hartu behar du, irizpide sozialak ere txertatu behar ditu irizpide akademikoez gain, eta bermatu behar du inork ez duela bere prestakuntza-proiektuari uko egin edo hura prekarizatu behar arrazoi ekonomikoengatik.

Inkestan parte hartu dutenen **% 21,4**k laguntza ekonomiko edo bekaren bat jasotzen duela adierazteak agerian uzten du laguntza horiek funtsezko zeregina dutela ikasketetara sartzea eta bertan jarraitzea bermatzeko, egoera ekonomikoa hezkuntzarako eskubidea baliatzeko oztopo bihur ez dadin.

Gazteen sustraitzea bultzatzeko gakoak

Ikasketak amaitu ondoren Bilbon geratzeko aukerari buruzko galderak aukera ematen du hiriari zaion atxikimendua eta bertan bizi-proiektu bat eraikitzeko benetako aukera bereizteko. Gazte askok Bilbo modu positiboan baloratzen dute, eta baldintza egokiak izango balituzte bertan geratuko lirateke (**% 59,2**). Hala ere, geratzeko nahia oso faktore zehatzen mende dago. Jarraian, baiezko irmoa sustatzen duten faktore nagusiak aztertzen dira.

Lan-aukerak

Gehien errepikatzen den baldintza jasotako prestakuntzarekin lotutako lan-aukerak izatea da. Ikasleek ez dute edozein enplegu eskatzen, kalitatezko enplegua baizik: ikasitako arloarekin lotua, soldata duinak, iraupen luzeko kontratuak, lanaldi osoak eta garapen profesionalerako aukerak eskainiko dituena.

Errealitate horrek erakusten du Bilbok talentua atxikitzeko gaitasuna izango duela unibertsitatea, praktikak, enpresak, administrazio publikoa, ekintzailetza eta gazteentzako kalitatezko enplegua modu eraginkorrean lotzen baditu.

Emantzipatzeko aukera

Etxebizitza berriro ere baldintza nagusi gisa agertzen da. Gazteek ezin badute emantzipatu, sustraitzea ezin da sendotu. Erantzun askotan, Bilbon geratzeko aukera zuzenean lotzen da alokairu merkeagoekin, etxebizitza eskuragarriekin, etxebizitzarako laguntzekin eta bizi-kostu txikiagoko hiri batekin.

Horrenbestez, etxebizitza eskuragarririk gabe, Bilbok ikasleak prestatu ditzake, baina ondoren hiritik kanporatzeko arriskua du. Unibertsitate Hiria izateaz gain, Bilbok "emantzipaziorako hiri" ere izan behar du.

Sare pertsonalak, identitatea eta komunitatea

Sustraitzea familian, lagunengan, kuadrillan, hizkuntza-identitatean eta komunitateko kide izatearen sentimenduan ere oinarritzen da. Gazte askorentzat, Bilbo erakargarria da beren bizitza dagoeneko bertan edo inguruan dagoelako. Kapital sozial hori hiriaren indargune nagusietako bat da.

Hala ere, zenbait erantzunek aniztasuna, inklusioa, euskara, tokiko kultura eta elkarguneak indartzeko beharra ere azpimarratzen dute. Izan ere, bertan geratzeko erabakia ez dago soilik enplegua izatearen mende; hiriko kide sentitzearen araberakoa ere bada.

Hiri-ingurunea eta bizi-kalitatea

Segurtasunari, garraioari, gizarte-bizitzari, berdeguneei eta azpiegiturei buruzko balorazioak, oro har, garrantzitsuak dira Bilbon geratzeko erabakian. Erantzunetan, berdegune gehiago, kultura-espazio gehiago, ikasleentzako jarduera gehiago, deskontuak, turistifikazio txikiagoa, garbitasun handiagoa, argiztapen hobea eta bisitarientzako hiriaren eta bertan bizi eta ikasten duten pertsonentzako hiriaren arteko oreka handiagoa eskatzen dira.

Bilbo Unibertsitate Hiriaren ereduak ez luke marketin-estrategia hutsa bihurtu behar. Kontsultaren emaitzek erakusten dute ikasleen eta bertan bizi den gazteriaren eguneroko bizitza erdigunean jarriko duen hiri-eredu baten beharra.

Prestakuntza- eta bizi-garapena

Gazteek positiboki baloratzen dute, halaber, masterren, graduondoko ikasketen, praktiken, espezializazioaren eta etengabeko prestakuntzaren bidez prestatzen jarraitzeko aukera. Bilbok Unibertsitate Hiri gisa duen eginkizuna indartu dezake ibilbide osoak eskaintzen baditu: gradura iristeko aukera, ikasketetan zehar laguntza, enplegurako trantsizioa eta bizitza osoan zehar prestakuntzan jarraitzeko aukerak.



Bilbo Unibertsitate Hiri gisa gazteen ikuspegitik eraikitzeko proposamenak

Jasotako erantzunetan oinarrituta, proposamenak zortzi jarduera-ildotan antola daitezke. Guztiek ideia bera partekatzen dute: Bilbo benetako Unibertsitate Hiria izango da gazteek ikasi, bizi, parte hartu eta bertan geratzeko behar dituzten baldintza materialak, akademikoak, sozialak eta kulturalak bermatzen baditu.

Etxebizitza eskuragarria

› Helburua: Bilbon ikasteko aukera alokairu garestiak ordaindu ahal izatearen edo familia-etxebizitza hurbil edukitzearen mende ez egotea.

Proposamen batzuk *`Etxebizitza: muga nagusia´* atalean jaso diren arren, honako hauek dira nabarmenenetako batzuk:

> **› Etxebizitza partekatu seguruak, arautuak eta arrazoizko prezioak izango dituztenak sustatzea.**
>
> **› Logelen alokairuan ematen diren gehiegikeriak mugatzea.**
>
> **› Bilboko Udal Etxebizitzei buruzko informazioa hobetzea.**
>
> **› Udala, Eusko Jaurlaritza, unibertsitateak eta gazte-eragileak koordinatzea, unibertsitateko ostatuari buruzko plan espezifiko bat diseinatzeko.**

Garraio publikoa

› Helburua: ikastegietara iristea oztopo ekonomiko edo lurraldekoa ez izatea.

Proposamenak *"Garraio publikoa"* atalean jasota daude, baina honako hauek dira aipagarrienetako batzuk:

> **› Ikasleentzako tarifa murriztuak edo bonu espezifikoak sortzea, eta ikasketekin lotutako joan-etorrietarako doakotasuna aztertzea.**
>
> **› Bizkaibus, metro, tren eta tranbiaren zerbitzuak indartzea unibertsitateko sarrera- eta irteera-orduetan.**
>
> **› Metropoli-ikuspegia txertatzea edo indartzea: Bilbo Unibertsitate Hiria ez da udal-mugaren barruan amaitzen.**

Ikaskuntzarako espazioak

› Helburua: ikasturte osoan zehar ikasteko espazio nahikoak, irisgarriak eta egokiak bermatzea.

Proposamenak *`Ikasteko espazioak eta unibertsitate-bizitza´* atalean jaso dira, baina honako hauek dira garrantzitsuenetako batzuk:

> **› Liburutegiak eta ikasteko gelak handitzea, eta espazio horien ordutegiak zabaltzea asteburuetan, jaiegunetan eta azterketa-garaietan.**
>
> **› Ikasteko guneen ondoan atseden hartzeko eta sozializatzeko espazioak sortzea.**

Unibertsitate-bizitza eta komunitatea

› Helburua: unibertsitate-zentroak dituen hiri bat izatetik unibertsitate-esperientzia partekatua eskaintzen duen hiri bat izatera igarotzea.

Proposamen batzuk *`Ikasteko espazioak eta unibertsitate-bizitza´* atalean jaso badira ere, honako hauek dira gauzatzeko errazenetako batzuk:

> **› Ikastegi desberdinetako ikasleak elkartuko dituzten unibertsitate arteko ekitaldiak bultzatzea, topaketarako, sorkuntzarako eta parte-hartzerako gazteentzako espazioak sortuz.**
>
> **› Aisialdi osasungarriko eta merkantilizatu gabeko kultura-jarduerak babestea.**
>
> **› Ikasleekin elkarlanean eraikitako "Bilbo Unibertsitarioa" agenda diseinatzea, euskararen presentzia etengabe indartuz.**

Laneratzea

› Helburua: Bilbok ikasleak prestatzeaz gain, etorkizunerako benetako aukerak ere eskaintzea.

Proposamenak *`Kalitate akademikoa´* atalean aipatzen badira ere, honako hauek dira nabarmenenetako batzuk:

> **› Kalitatezko praktikak indartzea, prekarizaziorik gabekoak.**
>
> **› Prestakuntzarekin lotutako gazteentzako kalitatezko sustatzea, talentua atxikitzea diskurtsoetan soilik oinarritu ez dadin, baizik eta benetako lan-baldintzetan.**

Ongizate integrala

› **Helburua: ikasteak presioa, ziurgabetasuna, karga emozionala eta laguntza-beharra ere badakartzala aitortzea.**

Proposamenak `*Kalitate akademikoa*´ atalean jaso dira, baina honako hauek dira esanguratsuenetako batzuk:

> **› Osasun mentaleko egoerak kontuan hartzea beketan, ikasketetan jarraitzeko baldintzetan eta ebaluazio-sistemetan.**
>
> **› Unibertsitateak ikasleen ahotsa modu egonkorrean entzutea sustatzea, besteak beste, irakasleen eta ikasleen arteko koordinazioa hobetuz.**

Bekak eta laguntzak

› **Helburua: laguntzak benetako aukera-berdintasunerako tresna izatea.**

Proposamenak `*Bekak eta laguntzak*´ atalean jaso dira, baina honako hauek dira garrantzitsuenetako batzuk:

> **› Sarbide-irizpideak zabaltzea, kalteberatasun-egoerak, emantzipazioa, osasun mentala eta titulazioen zailtasun-maila kontuan hartuz, baliabide gutxien dituzten pertsonak kanpoan gera ez daitezen.**
>
> **› Udal-, foru-, autonomia-erkidego- eta unibertsitate-mailako laguntzak koordinatzea, gainjartzeak eta estaldurarik gabeko egoerak saihesteko besteak beste, irakasleen eta ikasleen arteko koordinazioa hobetuz.**

Geratzeko moduko hiri bat

› **Helburua: sustapen hutsean oinarrituko ez den, baizik eta benetako eraldaketa bultzatuko duen Unibertsitate Hiriaren estrategia eraikitzea.**

EGK-k proposatzen dituen neurri nagusiak honako hauek dira:

> **› Gazte-erakundeak, baita EGK ere, estrategiaren diseinuan txertatzea.**
>
> **› Bilbo Unibertsitate Hiriaren inguruko egitura edo foro egonkor bat sortzea, unibertsitateak, Udala, ikasleak eta gazte-eragileak bilduko dituena.**
>
> **› Etxebizitza, garraioa, ongizatea, enplegua eta gazteen parte-hartzea aldian-aldian ebaluatzea, estrategiak hiriaren garestitzea ez duela sustatzen bermatuz.**

> Turismoaren, auzo-bizitzaren eta ikasle-bizitzaren arteko oreka sustatzea.

> Berdeguneak, segurtasuna, garbitasuna eta bizikidetzarako espazioak indartzea.

> Ikasleak zerbitzuen erabiltzaile huts gisa baino, eskubideak dituzten herritar gazte gisa aitortzea.

Ondorioak

Jasotako erantzunek erakusten dute Bilbok dagoeneko badituela benetako Unibertsitate Hiri gisa sendotzeko beharrezkoak diren elementu asko: prestakuntza-eskaintza zabala eta askotarikoa, prestigiodun unibertsitateak, giza eskalako hiri-ingurunea, garraio-sare egokia, kultura-bizitza aberatsa, segurtasun-maila handiak eta gazte talentua erakartzeko gaitasun nabarmena. Horri gehitu behar zaio familia- eta harreman-sareek hirian ikasteko eta bertan geratzeko erabakian duten garrantzia.

Hala ere, azterketak errealitate argi bat ere erakusten du: Bilbok Unibertsitate Hiri gisa duen arrakasta ez da soilik ikasleak erakartzeko duen gaitasunaren araberakoa izango, baizik eta bizi-proiektu bideragarri bat eskaintzeko duen gaitasunaren araberakoa. Erantzunen arabera, unibertsitateko esperientziaren kalitatea oso baldintzatuta dago, besteak beste, honako arrazoi hauengatik: etxebizitza eskuragarria lortzea, ikasketak eta enplegua bateragarri egitea, mugikortasuna, ongizate emozionala, laguntza akademikoa edo lan-aukerak ikasketak amaitutakoan.

EGKren ikuspegitik, erronka ez da soilik ikasle gehiagok Bilbo aukeratzea ikasteko. Benetako erronka da Bilbon bizi ahal izatea, Bilbon parte hartu ahal izatea, Bilbon emantzipatzea eta, hala nahi izanez gero, beren etorkizuna hemen eraikitzea. Unibertsitatea gazteen garapen pertsonal, profesional eta komunitariorako sarrera gisa ulertu behar da, eta ez hiriaren errealitatetik deskonektatutako etapa gisa.

Horregatik, Bilbo Unibertsitate Hiriaren eredurantz aurrera egiteko, estrategia partekatua behar da administrazio publikoen, unibertsitateen eta gizarte-eragileen artean, gazteak politika publikoen erdigunean jar ditzan. Etxebizitza, garraioa, bekak, enpleguaren kalitatea, osasun mentala, ikasketa-guneak, bizitza komunitarioa eta ikasleen parte-hartzea ez dira gai osagarriak, benetako unibertsitate-hiria eraikitzeko oinarriak baizik.

Azken batean, Bilbo Unibertsitate Hiria izango da, ez bakarrik unibertsitateak biltzen dituelako, baizik eta unibertsitate horietatik igarotzea etorkizuna duen bizi-proiektu bihurtzeko gai delako. Hiri bat non ikastea bateragarria den emantzipatzearekin, lan egitearekin, parte hartzearekin eta bizi-proiektu duin bat garatzearekin. Horrela bakarrik, Bilbok talentu gaztea erakartzeaz gain, talentu hori atxikitzea, haztea eta hiriaren etorkizunaren parte aktibo bihurtzea lortuko du.